

Sabino Arana 8  
48013 Bilbo  
beaz@bizkaia.eus  
Tel.: 944 395 622  
beaz.bizkaia.eus



BEAZ, SAU

# 2025eko ingurumen- txostena



Sabino Arana 8,  
48012 Bilbo  
Bizkaia



## AURKIBIDEA

---

1.BEAZen aurkezpena	2
2.Kudeaketa-politika	2
3.Kudeaketa-sistemaren deskribapen laburra	4
4.Ingurumen-alderdiak identifikatzea	5
5.Ingurumen-helburuak	6
6.Ingurumen-jarduera	7
7.Gerta daitezkeen larrialdi-egoerak	19
8.Kexak eta salaketak	19



## 1. BEAZen aurkezpena

---

1987an, Bizkaiko Foru Aldundiak BEAZ SAU sortzea onetsi zuen, Ekonomia Sustatzeko Sailaren mendeko erakunde gisa, Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetu beharra zegoelako.

BEAZ SAU foru-sozietate publikoa da, eta bere helburu soziala da enpresen lehiakortasuna sustatzeko, garatzeko eta bultzatzeko beharrezkoak diren jarduera oro egitea, kalitatezko lanpostuak sortzeko eta mantentzeko, orokorrean, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzaile bihur dadin, eta gizarte-kohesioa eta lehiakortasuna Bizkaiko gizartearen oraingo zein etorkizuneko ongizatearen berme izan daitezen.

Helburu horrekin, BEAZ SAUk Ekonomia Sustatzeko Sailak ematen dituen laguntza-programen definizioan eta kudeaketan parte hartzen du. Programa horiek enpresak sortzeko eta hazteko helburuetan oinarritzen dira.

Gainera, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, Bizkaiko ETEei eta ekintzaileei laguntzeko. Urtero, identifikatutako beharrianetan eta garatutako I+G+b proiektuen emaitzetan oinarrituta, zerbitzu berriak diseinatzen dira.

BEAZ SAUk enpresa-inkubagailuen eta startup azeleragailuen sare propioa du, ekintzailetzarako ingurune mesedegarria sortzea helburu duena, enpresek beren negozio-ereduak baliozkotu eta hazkundera bizkortu ahal izateko.

Era berean, enpresen eta pertsona ekintzaileen esku jartzen du networking-a errazteko ekosistema sustatzen duten espazioen eta azpiegituren sare bat. Espazio horiek orduka, lanaldi erdirako edo lanaldi osorako alokatu daitezke, eta bilerak, elkarrizketak, aurkezpenak, prestakuntza, coaching saioak, lan-gosariak eta abar egiteko ekipatuta daude.

## 2. Kudeaketa-politika

---

BEAZ Bizkaiko erreferentziazko entitatea da lurraldeko enpresa-sarean enpresa berritzaileak sortzeko eta berrikuntza sustatzeko. Era berean, balio ekonomikoa eta soziala sortzen duten zerbitzu bikain eta jasangarriak eskaintzeko konpromisoa dauka.

Zuzendaritzaren helburua da interes-taldeek erakundera aitor dezatela gizartearekiko arduratsua den, ingurumenarekin errespetutsua den, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konprometitu dagoen enpresa gisa, zeina bere langileen osasunari eta xede duen gizarte osoaren ongizateari adi dagoen. Horrez guztiaz gain, izenpetutako legezko eta borondatezko baldintzak betetzen ditu eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako lan-sistema mantentzen du, enpresa-bikaintasunaren markoan gure helburuak lortu ahal izateko.

Bere funtzioak garatzeko eta ekintzen etengabeko hobekuntza sustatzeko helburuarekin, BEAZek kudeaketa-sistema dokumentatua du, honako sistema hauen baldintzen arabera:

- Kalitatearen kudeaketa (UNE-EN ISO 9001:2015)



- Ingurumenaren kudeaketa (UNE-EN ISO 14001:2015)
- Webgune irisgarrien kudeaketa (UNE 301549:2022)
- Laneko arriskuaren prebentzioaren kudeaketa
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren kudeaketa
- *Complianceren* kudeaketa
- Zibersegurtasunaren kudeaketa
- Konfidentzialtasunaren kudeaketa eta datu pertsonalen babes
- Emaitzen babesaren eta ustiapenaren kudeaketa

### **Kalitatearekiko konpromisoa**

Kalitatearekin daukagun konpromisoak BEAZek markatik kanpoko zerbitzuak emateko asmoa duela erakusten du, kolaboratzaile ditugun pertsonengan eta erakundeengan konfiantza eragiteko eta horiei balioa emateko.

Gure ustetan kalitatea irozkaik estrategikoa da Bizkaiko berrikuntza, jasangarritasuna eta garapen ekonomikoa nahiz soziala bultzatzeko.

Politika horrek gure erabakiak bideratzen ditu eta esparru bat sortzen du kalitate-helburuak ezartzeko eta berrikusteko, betiere estrategiarekin eta erakundearen xedearekin koherentea dela ziurtatuta.

Lantalde osoaren erantzukizunean, partaidetzan, etengabeko ikaskuntzan eta aukera-berdintasunean oinarritutako kultura sustatzen dugu.

Hitzematen dugu modu iraunkorrean kalitatearen kudeaketa-sistema gero eta eraginkorrago egiteko, gure bezeroak gogobeteta daudela eta gure prozesuak bikainak direla bermatuta.

### **Berrikuntzarekiko konpromisoa**

Berrikuntzarekin daukagun konpromisoa Bizkaiko startupen eta ETEen ahalmen berritzailea bortiztera dago begira, era horretan lurraldeko hazkundera nahiz lehiakortasuna bultzatzen duten eta garapen jasangarria faboratzen duten emaitzak lortzeko.

- Arreta bezeroengan: laguntza ematen diegun enpresen beharrezanetan eta espektatibetan zentratzen dugu berrikuntza, eta konponbide pertsonalizatuak, malguak eta inpaktu handikoak eskaintzen ditugu.
- Elkarlana: kooperazio publiko-pribatua sustatzen dugu, pertsonen eta enpresa-, instituzio- eta akademia-entitateen arteko aliantzak erraztuz ekosistema berritzailea eta kolaboratiboa sor dadin.
- Berrikuntza-kultura: sormenari, ekimenari eta ideia berriak arakatzeari adorea emateko ingurugiroa suspertzen dugu, baldintza berberetan langileak aktiboki parte hartzea eta ezaupideak trukatzeko sustatuz.
- Etengabeko hobekuntza: gure ekintzen eraginkortasuna aldi oro ebaluatzen dugu, eta zerbitzuak nahiz estrategiak egokitzen ditugu horien garrantzia, efizientzia eta balioa segurtatzeko.

### **Ingurumenarekiko konpromisoa**



Ingurumena babestearekin dugun konpromisoak esan nahi du kudeaketa arduratsua eta jasangarria daramagula, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- Baliabideen erabilera jasangarria.
- Hondakinak murriztea eta arduraz kudeatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea sustatuta.
- Gure jardueren ondoriozko kutsadura prebenitzea eta minimizatzea.
- Gurekin lankidetzan dabiltzan enpresentzako eta entitateentzako sentsibilizazio-ikastaroak edo kidekoak ingurumenaren gainean.
- Ihebeko Erronka Garbia metodologia implementatzea, ekitaldien ingurumen-inkaktuak murrizteko jardunbideak ezagutzeko eta sustatzeko, ekitaldietara doazen pertsonak eta BEAZekin elkarlanean ari diren entitateak tarteko.

Politika hori bat dator enpresaren kulturarekin eta balioekin, eta erakundearen aldi-aldiaren komunikatu, ulertu eta aplikatu behar da.

Hori ezartzea BEAZko zuzendaritzaren helburua da, eta langile guztien ardurua.


### 3. Kudeaketa-sistemaren deskribapen laburra

---

BEAZ SAUren kudeaketa-sistemak honako hauek jasotzen ditu:

- **Kudeaketarako eskuliburua:** Zehatz-mehatz deskribatzen ditu BEAZek hartutako kudeaketa-sistemaren politika eta helburu orokorrak. Kudeaketa-sistemaren barruan egiten diren jardueren eta beste dokumentu edo ezarritako betearazpen-erregulazioen batzuei egiten die erreferentzia.
- **Politika:** Erakundearen asmoak eta kudeaketa, Zuzendaritza Nagusiak formalki adieraziak.
- **Prozedurak:** Jarduera bat egiteko modua zehatz-mehatz eta osorik deskribatzen duten dokumentuen multzoa da, eta erantzukizunak esleitzen dituzte. Prozedura estrategikoetan (erreferentzia: "PRE"), prozedura operatiboetan (erreferentzia: "PRO"), eta laguntza-prozeduretan (erreferentzia: "PRA") egituratzen dira, eta horiek guztiek zenbaki korrelatibo bat dute.
- **Erregistroen formatuak:** Eskakizunak betetzen direlako frogara gisa balio dute, bai eta kudeaketa-sistema integralak (KSI) baliagarria eta eraginkorra delako frogara gisa ere.
- **Beste dokumentu-erregistro batzuk,** barnekoak zein kanpokoak, KSIn funtzionamendu egokia eta eraginkortasuna ahalbidetzen dutenak.

Hona hemen BEAZ SAUren prozesuen mapa:



1. irudia. Prozesuen mapa

## 4. Ingurumen-alderdiak identifikatzea

BEAZ SAUren prozesuekin eta jarduerekin lotutako ingurumen-alderdiak ingurumen-arduradunak identifikatzen ditu, egungo prozesuak eta jarduerak kontuan hartuta, bai eta berriak edo aldatutakoak ere, halakorik badago, eta ezohiko egoerak eta larrialdi-egoerak, bizi-zikloaren ikuspegitik.

Zuzeneko alderdiak (erakundeak kontrola ditzakeenak) eta zeharkakoak (eragin dezaketenak) identifikatzen dira.

Identifikazio hori jarduerak izan ditzakeen ingurumen-eremuetan oinarritzen da.

Ingurumen-alderdien identifikazio eta erregistro hori sistemaren hasieran eta erakundearen jardueretan edota zerbitzuetan aldaketak dauden bakoitzean egiten da.

Ingurumen-alderdi bakoitzari lotutako arriskuak eta aukerak zehazten dira, eta honako helburu hauetarako landu behar dira:

- Kudeaketa-sistemak aurreikusitako emaitzak lor ditzakeela ziurtatu.
- Nahi ez diren efektuak prebenitu edo murriztu.
- Etengabeko hobekuntza lortu.



Arrisku eta aukera horiei aurre egiteko ekintzak ezartzen dira, ekintzak kudeaketa-sistemaren prozesuetan integratuta edo ezarrita, hala badagokio, eta ekintza horien eraginkortasuna ebaluatzeko metodoa inplementatuta.

Ingurumen-alderdiak identifikatuko eta berrikusiko dira, gutxienez, urtero, sistemaren berrikuspenean, eta alderdi berri bat identifikatzen den edo identifikatutako alderdiren bat aldatzen den bakoitzean. Hau da, jarduera, prozesu, instalazio edo zerbitzu bat hasten edo aldatzen den bakoitzean, haren ingurumen-alderdiak identifikatuko eta ebaluatuko dira, prozedura honetan ezarritakoaren arabera.

2025ean, BEAZ SAU enpresaren ingurumen-alderdi esanguratsuak honako hauek izan dira:

- Enpresako ibilgailuen erregai-kontsumoa
- Karbono-aztarna
- Paper- edo kartoi-hondakinak

Aurrerago ikusiko dugun bezala, ingurumen-helburuak definitzeko alderdi esanguratsuak hartu dira kontuan.

## 5. Ingurumen-helburuak

---

Ingurumena hobetzeko dugun konpromisoaren ildotik, urtero ingurumen-helburuak onesten dira eta horien betetze-mailaren jarraipena egiten da.

### 1.1. 2025eko ingurumen-helburuen emaitza

Hona hemen 2025erako proposatutako ingurumen-helburuen emaitza:

- *Hornitzaileen fakturak eta bidaiatxartelak digitalizatzea, administrazio-kudeaketa errazteko eta paperaren erabilera murrizteko: Baztertua.* Lehentasunak berrikusi dira, eta helburuaren hasiera aurrerago berriz planifikatzea erabaki da. 2027rako egitea kalkulatu da.
- *BEAZek Bizkaiko enpresen deskarbonizazioari egiten dion ekarpenaren jarraipena, Egokinn ekimenean duen partaidetza neurtuz:* Lortutako emaitzek erakusten dute Beazek ekarpen itzela egiten diela Bizkaiko enpresen deskarbonizazio-helburuei, eta frogatzen dute Egokinnen parte hartzea kanal eraginkorra dela trantsizio berdera eta digitalera bideratutako proiektuak bultzatzeko.

Halaber, Egokinnen parte hartzen duten enpresak D3, B2 eta D4 programetan izena ematera igarotzeak – adierazlearen % 140 beteta – berresten du lerrokatuta daudela Egokinn zerbitzua, batetik, eta deskarbonizazioan laguntzeko programak, bestetik, eta Beazek Bizkaiko enpresa-sarearen trantsizio energetikoan duen rola indartzen du.

Hurrengo aldiari begira, komeni da jarraipenerako eta analisirako barne-sistemak indartzea, Egokinnen eta trantsizio berdeko/digitaleko programen arteko koordinazioa sendotzea, eta enpresen parte hartzea areagotzeko eta deskarbonizazio-ekimenean inpaktua handitzeko laguntza bultzatzen jarraitzea.



- *Foru Sektoreko Energia Jarduketarako Plan Orokorra garatzeko ekarpena, Jasangarritasun Energetikorako Batzordearen esparruan: 2025ean zehar entitate partaidetuen arteko diagnostikoa landu da eta gauzatuko diren ekintzak definitu dira. Urte bereko azaroan Energia Jarduketarako Foru Plana berretsi eta aurkeztu zitzaizen entitate partaidetu guztiei. Xede hori amaitutzat eman da eta oraindik plan hori abian jartzen eta sei hilean behin jarraipena egiten laguntzeko lanekin hasiko da.*
- *Ibilgailuek erregaiak erabiltzearen ondorioz isuritako CO2ren % 4 murriztu, karbono-aztarna murrizteko helburuarekin: Gasolinari lotutako isurketak % 34 jaitsi dira. 2025. urtean gasolina-kontsumoa % 27,16 gutxitu zen 2024. urtearekin alderatuta; horrek, E5 gasolinaren isurketa-faktore txikiagoarekin batera, ibilgailuetarako gasolinari lotutako CO2 isurketek behera egitea ekarri du.*

Ibilgailu flota elektrikoetara aldatzeko edota erregai alternatiboak erabiltzeko bideragarritasunaren azterketa 2026ra atzeratu da, Jasangarritasun Energetikorako Batzordearen esparruan Foru Sektoreko Energia Jarduketarako Plan Orokorrarekin bat etorritik.

## 1.2. Ingurumen-helburuak 2026an

2026ko aldiari begira, honako ingurumen-helburu hauek zehaztu dira:

HELBURUA / EKINTZAK	EPEA
<b>Energia Jarduketarako Foru Planean parte hartzea:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sei hilean behingo jarraipena</li> <li>• Adostutako jarduketak martxan jartzea</li> </ul>	2026/12/31
<b>Enpresek EgokiNN programan gehiago parte-hartzea eta interesatuago egotea lurraldeko deskarbonizazioari on egiteko:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerbitzuaren planteamendu berria aurkeztea</li> <li>• Zerbitzu berria garatzea eta kaleratzea</li> </ul>	2026/12/31
<b>Paperaren/kartoiaren kontsumoa % 5 murriztea, horiei lotutako hondakinak gutxitzea lortzeko:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Infografia taxutzea, paperaren edota kartoiaren kontsumo txikiagoa eta horien hondakinak gutxiago sortzea sustatzeko aholkuak barne.</li> <li>• Langileak sentsibilizatzea</li> </ul>	2026/12/31

## 6. Ingurumen-jarduera

Jarraian, BEAZ SAUK azken urteotan egindako ingurumen-jarduerari buruzko datuak adieraziko dira. Ingurumen-jardueraren bilakaera aztertzerakoan, kontuan izan behar da 2020. eta 2021. urteak ez direla adierazgarriak izan, pandemiaren krisia dela-eta.

Bestalde, gogorarazi behar da 2024. urtean aldatu egin dela pertsonako kontsumoen eta hondakinen kalkulua aztertzeko irizpidea. Eraitza zehatzagoa eta, errealitateari erreparatuz, zuhurragoa izan dadin.



Berritasun gisa, 2025. urtean hobekuntza bat gehitu da erregai-kontsumoari egindako jarraipenean. Beste urte batzuetan ez bezala, kalkulu absolutuaz gain, gidatutako kilometro bakoitzeko erregai-kontsumoa kalkulatu da.


### 1.3. Berotegi-efektuko gasen kontsumoen eta isurtzeen bilakaera

#### 1.3.1. Energia elektrikoaren kontsumoa


Aztertutako datuak zerbitzua eman duen enpresaren fakturetatik lortu dira.

2025ean beherakada nabarmena ikusi da eraikinaren kontsumo elektrikoan, bai balio absolutuetan (kWh/urte), bai langile bakoitzeko adierazle erlatiboan. Grafikoen arabera, guztizko kontsumoa 2023an eta 2024an 102.000 kWh ingurukoa izatetik 2025ean gutxi gorabehera 92.000 kWh-koa izatera igaro zen; jaitsiera argia eta jarraitua gertatu da aurreko ekitaldien aldean, alegia. Joera hori, era berean, langile bakoitzeko kontsumoan antzematen da, 2023an zifra 1.500 kWh-tik gorakoa izatetik 2025ean 1.372 kWh ingurukoa izatera jaitsi baita.

Hobekuntza horren arrazoia azken urteotan ezarritako efizientzia-neurrien konbinazioan egon daiteke: sistema elektronikoen erregulazioa hobetzea, luminaria LED teknologiak ordezkatzeko eta erabilera efizienteko ohiturak tinkatzea.



2. irudia. Kontsumo elektrikoaren bilakaera




3. irudia. Kontsumo elektrikoaren bilakaera pertsona bakoitzeko

### 1.3.2. Paper-kontsumoa


Aztertutako datuak hornidura eman duen enpresaren fakturetatik atera dira, eta 3. eta 4. solairuetako bulegoetako ekipoen (Beazko langileek erabiltzen dituzten ekipoen) inprimaldien eta kopien zenbaketatik lortu dira.

Datuek erakusten dutenez, murriztapen progresiboa eta jarraitua jazo da paper-kontsumoan, bai kopuru absolutuetan (kg/urte), bai adierazle erlatiboan (langile eta urte bakoitzeko kg). 2022an guztizko kontsumoa 568 kg-koa zen, eta 2025ean, berriz, 378 kg-ra jaitsi da; beherakada nabarmena egon da, alegia. Joera hori langile bakoitzeko kontsumoan ere islatzen da.

Portaera horrek aditzera ematen du jardunbidea irmotasunez aldatu dela efizienteagoa izan dadin, eta papera gutxiago erabiltzen dela zentroko eguneroko jardueretan. Hobekuntza hori azal dezaketen faktoreak, besteak beste, modu arduratsuagoan inprimatzea sustatzea, bi orrialdeetan automatikoki inprimatzea konfiguraturuta, eta dokumentuak formatu elektronikoetan erabiltzera akuilatzea dira. Edonola ere, joera hori hobetzeko tartea dagoela uste da, eta, horregatik, paper-kontsumoa murrizteko helburu espezifikoak ezarri dira.



4. irudia. Paper-kontsumoaren bilakaera



4. irudia. Paper-kontsumoaren bilakaera pertsona bakoitzeko

### 1.3.3. Ur-kontsumoa


Aztertutako datuak zerbitzua eman duen enpresaren fakturetatik lortu dira.

2024an, azken fakturetan ur-kontsumoaren irakurketa eguneratzen ari ez zela ohartu ostean, eraikineko kontagailua aldatu zen 2024ko azken hiruhilekoan, eta, beraz, geroztik eraikinaren benetako kontsumoa zenbatzen hasi da.

Eraikinaren ur-kontsumoaren analisiak bilakaera aldakorra adierazten du aztertutako aldiari, une jakin batzuetan goraka egin baitu eta oraindik orain joera balio apalagoetara egin baitu.

Adierazle erlatiboaren portaerak (langile eta urte bakoitzeko m<sup>3</sup>), hobekuntza progresibo hori berresten du: 2020an gehienez 7 m<sup>3</sup>/langile izan ondoren, kontsumoa pixkanaka murriztuz joan da, 2024an eta 2025ean 5 m<sup>3</sup>/langile izatera arte. Aurreko urteekin alderatuta, maila efizienteagoetan kokatu da.

Bilakaera positibo hori kontsumoen erabilera optimizatzeari eta behargabeko kontsumoak txikiagotzeari zor zaie, eta gune eta eremu komunen garbiketarekin eta erabilerarekin lotutako eraikineko zerbitzuak berrikusi dira, baliabideen efizientzia hobetuta.



5. irudia. Ur-kontsumoaren bilakaera



6. irudia. Ur-kontsumoaren bilakaera pertsona bakoitzeko


### 1.3.4. Ibilgailuetarako erregaiaren kontsumoa

Datuak enpresako ibilgailuen deposituak bete direnean sortutako fakturretatik lortu dira. Aurten erregai mota zehaztu da ibilgailuen erregai-kontsumoaren jarraipen-analisan.

Zentroko ibilgailuei lotutako erregai-kontsumoak bilakaera irregularra agertu du aztertutako aldirian, fase batzuetan jaitsiera handiak eta aton hazkunde puntualak eduki baititu. 2022tik aurrera gorako joera laburra antzeman da.


Pandemia jasandako urteez geroztik kontsumoak igo egin izanak adierazten du garai horren aurreko mugikortasun-mailen antzekoagoetara itzuli garela, eta zentroko ibilgailuak gehiago erabiltzen direla joan-etorri operatiboetarako, bisita teknikoetarako edo barne-logistikarako.

Aurten, hobekuntza garrantzitsua txertatu da ibilgailuen energia-kontsumoari jarraipena egiteko metodologian: ibilitako kilometro bakoitzeko erregai-kontsumoa neurtuko da, erregai motaren arabera bereizita (gasolina eta diesela). 2025. urteari dagokionez ageri den datua bigarren seihilekoko da, baina asmoa da 2026tik aurrera urte osoko datua partekatzea, denboran zeharreko konparazioak lortu ahal izateko.




7. irudia. Erregai-kontsumoaren bilakaera

**Consumo Combustible Vehículos (L/año) x tipo de combustible**



8. irudia. Erregai-kontsumoaren bilakaera, erregai motaren arabera

**Consumo Combustible Vehículos (L/kilometros) año x tipo de combustible**



9. irudia. Erregai-kontsumoaren bilakaera, kilometroen eta erregai motaren arabera


### 1.3.5. Gas naturalaren kontsumoa

Datuak zerbitzua eman duen enpresaren fakturretatik lortu dira.


Eraikinaren gas naturalaren kontsumoak gorabeherak izan ditu aztertutako aldian. 2021ean gora egin zuenetik, gas naturalaren kontsumoa antzekoa izan da azken urteotan, eta aurtien zertxobait beheititu da 2024rekin alderatuta.



Adierazle erlatiboak (gas naturalaren m<sup>3</sup> langile eta urte bakoitzeko), patroi bera erreproduzitzen du. Eraikineko berogailuen edota ekipo termikoen erabilera eraginkortasun handiagoz kudeatu da, eta horrek zertxobait hobetu du kontsumoa azken urteotan.



10. irudia. Gas naturalaren kontsumoaren bilakaera



11. irudia. Gas naturalaren kontsumoaren bilakaera pertsona bakoitzeko

## 1.4. Sortutako hondakinak

BEAZ SAU enpresak sortutako hondakinak hondakin ez-arriskutsuetan (HEA) eta hondakin arriskutsuetan (HA) bereiz daitezke.

### 1.4.1. HEA: Papera eta kartoia

Datuak hondakinak jasotzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den enpresak emandako informaziotik lortu dira.


Zentroak paperetik eta kartoitik sortutako hondakinak aztertutakoan oszilazio markatuko bilakaera egon dela ikusi da, eta, bertan, hein txikiagoan sortu diren urteak eta gorakada puntualak aldizkatzen dira. Adierazle absolutuan (kg/urte), 2021az geroztik 800-900 kg inguruko tarteko balioak mantendu dira.

Adierazle erlatiboari dagokionez (hondakinen kg langile eta urte bakoitzeko), 2022tik eskuragarri dagoena, begi-bistakoa da urte horretatik eman den igoera. Horrek adierazten




du, indibidualki, langile bakoitzak sortutako hondakina maila nahiko altuetan geratu dela azken urteotan.

Eboluzioak bere portaera interpretatzeko aukera ematen duten funtsezko hainbat elementu erakusten ditu. 2025ean paper-kontsumoak behera egin du, paper- eta kartoi-hondakinek gora egin duten bitartean. Kontuan hartu behar da sortutako hondakina ez dela beti zuzenean erlazionatzen oraingo kontsumoarekin; izan ere, lehendik eraikinean zeuden materialen kudeaketarekin ere erlazionatzen da. Kasu honetan, mezularitzarekin eta bulegora iristen diren beste produktu batzuen erosketarekin lotutako kartoiek sortutako hondakin guztiak.



12. irudia. Sortutako paper-hondakinen bilakaera




13. irudia. Sortutako paper-hondakinen bilakaera pertsona bakoitzeko


#### 1.4.2. HEA: Inprimagailu-tonerrak

Datuak hondakinak jasotzeko baimena duen enpresa kudeatzaileak emandako informaziotik lortu dira.

2025ean ez da inprimagailu-tonerrik jaso, 2024an bilketa masiboa egin zelako. 2024an inprimagailu-tonerren bilketa masiboa egin zen, eta, horregatik, 2025ean ez da halakorik egin.



14. irudia. Sortutako toner-hondakinen bilakaera




15. irudia. Sortutako toner-hondakinen bilakaera pertsona bakoitzeko

### 1.4.3. HA: Bateriak eta pilak


Datuak, berunezko baterien kasuan, hondakinak jasotzeko ardura duen enpresak emandako informaziotik lortu dira.

2025ean erregistratutako berunezko baterien hondakin-kopurua izugarriki gehitzeak lotura zuzena du eraikineko etenik gabeko elikadura-sistemak berritzearekin. Esku-hartze mota horrek berarekin dakar etenik gabeko elikadura-sistemak elikatzen dituzten bateria-multzoak erabat ordezkatzeari, haien pisua eta bolumena bateriak konbentzionalena baino askoz handiagoak baitira. Ondorioz, ohiz kanpoko hondakin-bolumen handia sortzen da, urte horretan erregistratutako balioaren kausa, usaiako mailen oso gaineratik dagoena.

Pilen kasuan, urrutiko saguetan edo aginteetan pilak erabiltzeagatik sortzen den hondakina da. Sortutako hondakinak hiru hilean behin botatzen dira udalak horretarako dituen bilketa-puntuetan.



16. irudia. Berunezko baterien hondakinen bilakaera




17. irudia. Berunezko baterien hondakinen bilakaera pertsona bakoitzeko

#### 1.4.4. HA: Osagai elektrikoak eta elektronikoak


Datuak hondakinak jasotzeaz arduratzen den enpresak emandako informaziotik lortu dira.

2021etik aurrera, hondakinen biltetaren bilakaera absolutuan beheranzko joera jarraitua finkatu da, 349 kg biltzetik 2025ean 88 kg biltzera igaro baikara. Tresna elektrikoek eta elektronikoek hondakinak modu iraunkorrean murrizteak honako neurri hauen konbinazioa du iturburu: balio-bizitza luzatzea prebentziozko mantentze-lanen bidez,

Aurrerapen argia eta jarraikorra nabari da tresna elektrikoek eta elektronikoek hondakinen prebentzioan eta kudeaketan, 88kg murriztu baita 2019ko maximoarekin alderatuta, eta intentsitatea langile bakoitzeko 2 kg-tan egonkortu baita 2023tik. 2020an erregistratutako 0 balioak ez du berez egiturazko hobekuntzarik islatzen, unean uneko eragin operatiboa baizik; benetako hobekuntza 2021-2025 aldian azaleratzen da.



18. irudia. Osagai elektrikoaren eta elektronikoen hondakinen bilakaera



19. irudia. Osagai elektrikoaren eta elektronikoen hondakinen bilakaera pertsona bakoitzeko

## 1.5. CO2 isurketa guztien bilakaera

Jarraian, karbono-aztarnaren kalkulua azalduko da, sortutako baliabideen eta hondakinen kontsumoari erreparatuta.

Ikus daitekeenez, erakundeak karbono-aztarnari egiten dion ekarpenik handiena energia elektrikoaren kontsumoari dagokio. Aurten kontsumoa txikiagotu egin da, abian jarritako energia-efizientziako neurriei esker. Hala ere, isurketa-faktorea handitu egin da, eta horregatik igo dira aurten kontzeptu horri lotutako isurketak.

Bestalde, dieselaren kontsumoari lotutako isurketak pixka bat igo direla antzematen da. BEAZek aktiboki parte hartzen duen Energia Jarduketarako Foru Planaren esparruan, karbono-aztarna murrizteko lanean jarraituko da, energia-efizientzia eta iturri berriztagarrietarako trantsizioa jomuga dituzten neurriak indartuta.



URTE A	Elektrizitate aOF <sup>1</sup>	Ura1F <sup>2</sup>	Diesel erregaia2F <sup>3</sup>	Gasolina erregaia3F <sup>4</sup>	Gas naturala4F <sup>5</sup>	Paper- eta kartoi- hondakinak5F <sup>6</sup>	BEAZek isuritako CO2 kg- ak, GUZTIRA
2015	26.997,39	117,70	2.181,73		2949,79	14,50	32.261,1 1
2016	16.752,15	107,14	1.306,21		3086,39	12,36	21.264,2 5
2017	32.973,08	89,76	1.205,32		2959,50	37,94	37.265,6 0
2018	31.554,09	70,00	1.161,39		2679,86	10,66	35.476,0 0
2019	23.397,00	97,96	1.053,17		2545,58	6,40	27.100,1 0
2020	22.444,60	168,10	210,09		2150,40	12,58	24.985,7 7
2021	16.167,00	59,55	551,06		2577,32	25,38	19.380,3 2
2022	26.538,60	54,59	676,18	506,55	2056,14	12,66	29.844,7 2
2023	27.528,94	70,80	258,14	624,21	1922,21	19,05	30.423,3 4
2024	24.541,51	52,21	415,92	679,26	2068,10	5,10	27.762,1 0
2025	25.273,88	62,56	784,64	446,04	1.993,11	4,01	28.564,2 2

20. irudia - Isuritako CO2 kg-ak lortzeko datu-taula

<sup>1</sup> Kontsumo elektrikoa: (kWh x urte) x Isurketa-faktorea = Kontsumitutako energia elektrikoaren kg CO2/kWh


<sup>2</sup> Ur-kontsumoa: (m3 x urte) x Isurketa-faktorea = Kontsumitutako uraren kg CO2e/m3

<sup>3</sup> Erregai-kontsumoa (l/urte): Enpresako ibilgailuak x Isurketa-faktorea = Kg Co2/l. Kontsumitutako diesela

<sup>4</sup> Erregai-kontsumoa (l/urte): Enpresako ibilgailuak x Isurketa-faktorea = Kg Co2/l. Kontsumitutako gasolina

<sup>5</sup> Gas naturalaren kontsumoa (m3/urte) x Isurketa-faktorea = Kontsumitutako gas naturalaren Kg CO2/KWh

<sup>6</sup> "Papera eta kartoa" hondakina (kg/urte) x Isurketa-faktorea = sortutako paper- eta kartoi-hondakinen kg CO2e/t



21. irudia. Guztizko CO2 isurketen bilakaera



22. irudia. Langile bakoitzak guztira isuritako CO2 kg-en bilakaera

## 7. Gerta daitezkeen larrialdi-egoerak

BEAZ SAUk larrialdi-egoera potentzial hauek identifikatu ditu, eta kasuan kasuko erantzun-mekanismoak ezarri ditu:

- **Sutea:** haren alderdiak lotutako hondakinak eta sortzen dituen isuriak dira.
- **Uholdea:** hark sortutako hondakinak, lotutako alderdi gisa.

Azken urteotan, ez da larrialdi-egoerarik gertatu.



## **8. Kexak eta salaketak**

---

Ekitaldian zehar ez da kexarik edota salaketarik erregistratu.